

BESTELAKO XEDAPENAK

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA

4567

AGINDUA, 2014ko urriaren 15ekoa, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburuarena, zeinen bidez deialdia egiten baita helduen hezkuntzaren alorrean jarduerak garatzen dituzten eta irabazi-asmorik gabekoak diren erakundeei diru-laguntzak emateko.

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburuak 2008ko urriaren 31ko Agindua eman zuen, pertsona helduen oinarriko hezkuntzaren berariazko curriculuma erabaki eta Euskal Autonomiako Erkidegoan finkatzen duena.

Hezkuntzaren maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoaren I. tituluaren IX. kapituluak, pertsona helduen hezkuntzari buruzkoak, hezkuntza arlo horrek eduki beharko dituen oinarriak ezartzen ditu, bai antolakuntzaren helburu orokorren ikuspegitik, bai erakunde ezberdinen antolakuntzaren eta elkarlanaren ikuspegitik.

Hezkuntza sistemaren alor horretan ekimen pribatuak burutzen dituen esperientzia interesgarriak kontuan hartuta; batez ere, bereziki behartsuak diren talde sozial batzuk artatzeari dagokionez, komenigarria dirudi horrelako jardueri laguntzak eskaintzeak.

Horren ondorioz, honako hau

EBAZTEN DUT:

1. artikulua.– Helburua.

1.– Deialdi honen helburua hauxe da: 2013-2014 ikasturtean zehar, irabazi-asmorik gabe, oinarriko hezkuntza mailan helduen hezkuntzaren alorrean lankidetzak eskaintzen ari diren Euskal Autonomia Erkidegoan egoitza duten erakundeei laguntzak ematea.

2.– Deialdia finantzatzeko, 39.000 euro erabiliko dira, gehienez ere.

2. artikulua.– Izapidetze elektronikoa.

1.– Pertsona edo erakunde interesdunek bitarteko elektronikoak erabili beharko dituzte prozedura honen izapideak eskatu, kontsultatu eta burutzeko.

2.– Administrazio Elektronikoari buruzko otsailaren 21eko 21/2012 Dekretuak eta Plata E-Administrazioako Plataforma Teknologikoa onartzen duen informatika eta Teknologiako zuzendariaren 2006ko otsailaren 9ko Ebazpenak arautzen dute izapidetze elektronikoa.

3.– Eskerak eta erantzukizunpeko adierazpenak modu elektronikoa zelatik egin jakiteko eta ereduak eskuratzeko, jo helbide elektronikoa honetara: <https://euskadi.net/dirulaguntza/-/2014/epalagun/y22-izapide/eu>

Eskeraren osteko izapideak helbide honetan egingo dira, bide elektronikoz: <https://www.euskadi.net/nirekudeaketak>

4.– Pertsona interesdunak beren izenean administrazioaren aurrean jarduteko beste pertsona bati ematen dionean ordezkari baliabide elektronikoen bidez Euskal Autonomia Erkidegoko

Administrazioarekin aritzeko, ordezkaritza horrek Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioi ordezkarien erregistro elektronikoa jasota egon behar du ezinbestean, <https://euskadi.net>

3. artikulua.– Onuradunak.

Agindu honetan ezartzen diren baldintzak betetzen dituzten erakunde, instituzio edo kolektiboek eskatu ahal izango dituzte diru-laguntza hauek, baldin legez sortutakoak badira, oinarrizko hezkuntza mailako helduen hezkuntzarako jardunak garatzeko baimena badute, eta arlo honetan edo garatu ditzaketen beste hezkuntza jarduera batzuetan irabazi-asmorik ez badute.

4. artikulua.– Erakunde eskatzailearen betebeharrak.

1.– Deialdi honetan parte har dezakete ondorengo betebeharrak betetzen dituzten erakundeek:

a) Irabazi asmorik gabeko izaera dutenek.

b) Oinarrizko Hezkuntza mailako Helduen hezkuntzarako jardunak garatzeko baimena dutenek eta 2013-2014 ikasturtean diruz lagundutako jarduera burutu dutenek.

c) Zerga eginkizunak eta Gizarte Segurantzakoak beteta dituztela egiaztatzen dutenek.

d) Ezingo dute deialdi honetako diru-laguntzarik eskatu laguntza publikoak lortzeko zigor administratibo edo penalik dutenek, ezta ere horretarako gaitasuna kentzen dien legezko debekurik, sexu bereizkeriaren ziozko zigor administratibo edo penalak barne hartuta, Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen arabera.

5. artikulua.– Baldintzak betetzea.

1.– Erakunde eskatzaileak zerga eta Gizarte Segurantzako betebeharrak eguneratuak dituela ofizioz egiaztatuko da.

2.– Azaroaren 11ko 1/1997 Dekretuaren 50.6. artikuluan ezarritakoa aplikatuz, erantzukizunpeko adierazpen batekin batera ondorengo inguruabarrak egiaztatuko dira:

– Eskatzaileak beste herri administrazio edo erakunde publiko nahiz pribatu batzuetatik diru-laguntza, laguntza, sarrera edo beste baliabide batzuk jaso dituen ala ez.

– Eskatzaileak ez duela diru-laguntzak edo laguntza publikoak jasotzea eragozten dion administrazio-zehapen edo zehapen penalik, ez eta laguntzak jasotzeko gaitasuna kentzen dion lege-debekurik ere.

– Eskabidean eta dokumentazioan jasotako datuak egiazkoak direla, eta laguntza hauen onuradun izateko, indarrean den araudian ezarritako baldintzak konplitzen direla.

– 2013-2014 ikasturtean Oinarrizko Hezkuntza mailako Helduen hezkuntzarako jardunak garatzeko baimena dutela.

3.– Eskatzaileak baimena emango du laguntzak kudeatzen dituen organoak gainerako datu edo dokumentuak eskuratu edo egiaztatu dituzan, Administrazio Publikoak egiaztapen, kontrol eta ikuskaritzaren alorrean dituen eskumenen kalterik gabe.

6. artikulua.– Diru-laguntza jaso dezaketen jarduerak.

Titulu ofiziala lortzearen oinarrizko hezkuntza mailako helduen hezkuntzako jarduerak jaso ahalko dituzte agindu honetan arautzen diren laguntzak.

2013-2014 ikasturtean gauzatu behar dira jarduera horiek eta, gainera, ikasturte osoan zehar. Halaber, Euskal Autonomia Erkidegoan helduen hezkuntzaren berriazko curriculuma erabaki eta finkatzen duen Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuaren 2008ko urriaren 31ko Aginduan jarritako baldintzak bete behar dira.

7. artikulua.– Eskabideak aurkeztea eta epeak.

1.– Eskaerak aurkezteko epea hilabetekoa izango da Agindua argitaratu eta biharamunetik aurrera.

2.– Eskaerak bide elektronikoz egingo dira ondorengo helbidean:

https://euskadi.net/diru_laguntza/-/2014/epalagun/y22-izapide/eu

3.– Eskaerarekin batera ondorengo dokumentazioa aurkeztuko da:

– Inprimaki eredu «Erakunde eskatzailearen datuak eta garatu beharreko jarduerak»

– Diruz laguntzea eskatzen den jarduera justifikatzen duen txosten pedagogikoa, gutxienez honako hauek jasoz: proiektua justifikatzen duten arrazoiak; proiektuaren garapena (edukiak, metodologia, ordutegia, egutegia, baliabideak etab.) eta emaitzak ebaluatzeko modua.

4.– Eskatzaileek eskabidea eta dokumentazioa euskaraz edo gaztelaniaz aurkez ditzakete, nahi duten eran. Orobat, prozeduran zehar, erakundeak hautatutako hizkuntza erabiliko da, Euskararen erabilera normalizatzeari buruzko azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legearen 5.2.a) eta 6.1 artikuluetan ezarritakoaren arabera.

8. artikulua.– Laguntzak kudeatuko dituen organoa.

1.– Ikastetxeen Zuzendaritzari dagokio deialdi honetan aurreikusitako laguntzak kudeatzea.

2.– Lurralde Ordezkaritza bakoitzeko Osabidezko eta Helduen Hezkuntzako atalak eskabide bakoitzari buruzko informea egingo du 10 eguneko epean. Horretarako, Hezkuntzako ikuskatzailetzari informea eskatu ahal dio, horrek eskabidea agindu honetan adierazitako helburuei eta hamahirugarren artikuluan aipatutako irizpideei zenbateraino egokitzen zaien baloratu dezan. Txostena Ikastetxeen Zuzendaritzara bidaliko da.

9. artikulua.– Eskabidean egindako hutsen zuzenketa.

Ikastetxeen Zuzendaritzak eskabidean hutsik antzematen badu, eskatzaileari jakinaraziko dio eta 10 eguneko epea emango dio hutsak zuzentzeko. Hamar egunen buruan zuzendu ezik, eskabidea bertan behera utzi dela pentsatuko da, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 71.1 artikuluan aurreikusten den prozedurari jarraituz, ebazpena eman ondoren.

10.– artikulua. Hautaketa-batzordea.

Eskabideak aztertzeko eta ebaluatzeko, hautaketa-batzordea eratuko da. Hona batzordearen kideak:

– Ikastetxeen zuzendaria edo hura ordezkatzeko duena; batzordeburu jardungo du.

– Lurralde-ordezkaritzetako Osabidezko eta Helduen Hezkuntzako Ataletik Etengabeko Ikas-kuntzako lagun bana, Ikastetxeen zuzendariak izendatuta.

– Lagun bat, Ikastetxeen zuzendariak izendatua; idazkari jardungo du, ahotsa izango du, baina botorik ez.

Batzordeak, esleitzeko irizpideak oinarritzat hartuta, ebazpen proposamena igorriko dio Hezkuntza sailburuordeari.

11. artikulua.– Diru-laguntzak ematea.

Deialdi honetan ezarritako baldintzak betetzen dituzten eskabide guztiei emango zaizkie diru-laguntzak, baina emateko orduan, 1.artikuluaren ezarritako mugari erreparatuko zaio.

12. artikulua.– Diru-laguntzen zenbatekoa.

1.– Diru-laguntzaren gehienezko zenbatekoa aurkeztutako aurrekontuaren % 100era iritsi ahal izango da.

2.– Hauek dira diru-laguntzaren zenbatekoa zehazteko jarraituko diren irizpideak:

a) Aurrekontu guztiaren % 70 banatuko da baldintzak betetzen dituzten eskabide guztien artean, proportzionalki, hurrengo artikuluen irizpideak neurtuz emandako puntuazio guztiaren arabera.

Kopuru horretatik ikasleek ordaindutako kuota kenduko da, horrelakorik ordaintzen badute.

b) Aurrekontuaren % 20 hautatutako erakundeetan titulu ofiziala lortzearren oinarritzko hezkuntza egiten ari diren ikasle kopuruaz zatituko da; erakunde bakoitzak zenbat diru jasoko duen ikasle kopurua kontuan hartuta zehaztuko da.

c) Aurrekontuaren % 5 proiektuaren kalitate pedagogikoa neurtuz emandako puntuazioaren arabera, proportzionalki, banatuko da.

d) Aurrekontuaren % 5 talde marjintuak edo bereziki behartsuak artatzeagatik jasotako puntuazioaren arabera, proportzionalki, banatuko da.

13. artikulua.– Aurrekontu orokorreko % 70 banatzeko irizpideak.

Diru-laguntza zehazteko, ondorengo irizpideen eta puntuazioaren arabera baloratuko dira eskabideak:

a) Talde marjintuak eta landa edo hiri-gune bereziki behartsuetako taldeak artatzea: 20 puntu izan arte.

b) Artatutako ikasle kopurua: 20 puntu izan arte.

c) Doakotasun maila ematen den zerbitzuaren kostuarekiko: 30 puntu izan arte.

d) Oinarritzko hezkuntzaren baliokide diren jardueren kalitate pedagogikoa; kontuan harturik gizon-emakumeen arteko berdintasunaren aldeko ahalegina eta eskualde horretarako helduen hezkuntza beharretara egokitzea: 30 puntu izan arte.

14. artikulua.– Bateragarritasuna beste laguntza batzuekin.

Deialdi honetako diru-laguntzak bateragarriak dira beste edozein erakunde publiko edo pribatuk helburu berarekin emandako beste laguntzekin, baldin eta hortik ez bada gain-finantzaketarik sortzen; bestela, laguntza murriztuko da, dagokion gehienezko mugaraino.

15. artikulua.– Prozeduren ebazpena.

1.– Deialdi honetako diru-laguntzak ebaztea Hezkuntza sailburuordeari dagokio, Hautaketa Batzordearen proposamena kontuan hartuta. Horretarako epea 6 hilabetekoa izango da, EHAA deialdi hau argitara eman denetik aurrera. Ebazpena esleipendunei jakinarazi egingo zaie eta Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian ere argitaratuko da.

Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak edo erakunde autonomiadunek ezaugarri bereko beste laguntza edo diru-laguntzaren batzuk eman izana dela-eta horiek itzultzeko edo zigortzeko prozesuren bat oraindik ere izapidetzen ari bada, prozesu hori amaitu egin beharko da erakunde onuradunei diru-laguntzak edo laguntzak eman eta ordaindu ahal izateko.

2.– Epe hori igaro eta gero eta interesatuak jakinarazpenik jaso ez badu, eskabidea ezetsi egin dela ulertu ahal izango da.

3.– Prozeduraren ebazpenaren aurka gora jotzeko errekurtoa jarri ahal izango zaio Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburuari, hilabeteko epean, EHAA argitaratzen denetik zenbatzen hasita.

16. artikulua.– Onuradunaren betebeharrak.

Agindu honetako diru-laguntzak jaso ditzaketenek honako betebeharrak izango dituzte:

a) Emandako diru-laguntza onartzea. Hau da, diru-laguntzaren esleipena jakinarazten zaionetik hamabost egun naturaletara idatziz eta beren beregi uko egiten ez badio, laguntza onartzen duela ulertuko da.

b) Diru-laguntza zuzen erabiltzea, hots, ez deialdiaz besteko helbururen baterako.

c) Deialdi honetako diru-laguntzak direla eta, haien funtzioak betez eskatzen duten informazio guztia ematea Kontrol Ekonomikoko Bulegoari eta Herri Kontuen Euskal Epaitegiari.

d) Aurkeztutako proiektua burututakoan, izandako emaitzak jasoko dituen txosten ebaluatzailea aurkeztea.

e) Gainontzeko betebeharrak azaroaren 11ko 1/1997 Legegintza Dekretuaren bidez onartutako Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bategina-ren 50.2. artikulua ezarri duenaren arabera.

17. artikulua.– Diru-laguntza ordaintzea.

Jarduera amaitu ondoren egingo da ordainketa, emandako laguntzaren guztizko kopurua justifikatu ondoren. Justifikazioaren dokumentazioa 18.artikuluaren adierazten den bezala egingo da.

18. artikulua.– Diru-laguntzaren zuriketa- Aurkezteko lekua, modua eta dokumentazioa.

Zuriketarako dokumentazioa bitarteko elektronikoen bidez aurkeztu beharko da ondorengo helbidean: <http://www.euskadi.net/Nirekudeaketak>

Onuradunek «Justifikazio kontu sinplifikatua» aurkeztu beharko dute. Horretarako «Zerrenda gastuak» izeneko formulario erabili beharko dute; eredia ondorengo helbide elektronikoan dago eskuragarri (https://euskadi.net/diru_laguntza/-/2014/epalagun/y22izapide/eu).

Ikastetxeen Zuzendaritzak egiaztatu ahal izango ditu laginketa-tekniken bidez egoki irizten dituen jardueraren ziurtagiriak, eta horrela iritziz gero erakunde onuradunari eskatu hasieran aurkeztu ez dituen ziurtagiriak.

19. artikulua.– Diru-laguntza emateko baldintzak aldatzea.

Diru-laguntzak emateko baldintzetan edozein aldaketa gertatuz gero – helburua betetzen dela ziurtatua-, eta, hala badagokio, beste erakunde publiko edo pribatu batzuek emandako laguntzarik jasoz gero, diru-laguntzak esleitzeko ebazpena aldatu ahal izango da. Horretarako, Ikastetxeen Zuzendaritzak emandako likidazio-ebazpenaren bidez doituko dira emandako diru-laguntzak.

20. artikulua.– Ez-betetzeak.

Laguntza emateko ezarri diren baldintzak betetzen ez badira, jasotako kopuruak eta legezko interesak itzuli beharko zaizkio Euskal Autonomia Erkidegoko Diruzaintza Nagusiari, Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bategina onartzen duen azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuan eta abenduaren 17ko 698/1991 Dekretuan ezarritakoari jarraiki.

21. artikulua.– Datu pertsonalak.

Datu pertsonalak Babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoarekin eta Datu Pertsonaletarako Jabetza Publikoko Fitxategiei eta Datuak Babesteko Euskal Bulegoa Sortzeari buruzko otsailaren 25eko 2/2004 Legearekin bat etorritz, deialdi honen tramitazioan jasotako datu pertsonalak, parte hartzaileek erabiltzea eta argitaratzea baimentzen dituztenak, Hezkuntza Berriztatzeko Zuzendaritzaren Erakundeetarako deialdiak fitxategian jasoko dira. Fitxategi honen helburua deialdi honetako diru-laguntzak eta deialdi honekin zer ikusia duten beste edozein prozedura edo espediente administratibo kudeatzea izango da, eta baita deialdi honetara aurkeztu diren pertsonen deialdiaren garapenari buruz informatzea ere. Fitxategi honen arduraduna Hezkuntza Berriztatzeko Zuzendaritza da. Lege horretan adierazitako sarbide, zuzenketa, ezabatze eta aurkatze-eskubideak erabiltzeko Hezkuntza Berriztatzeko Zuzendaritza jo beharko da helbide honetara: Donostia kalea 1, 01010 Vitoria-Gasteiz.

Halaber, deialdi honetan parte hartu duten pertsonen, Ikastetxeen Zuzendaritzari baimena ematen diote beste erakunde publiko batzuetan egiazta dezan aurkeztutako agiriak egiazkoak diren.

AZKEN XEDAPENETATIK LEHENENGOA

Agindu honek administrazio bidea amaitzen du, baina beronen kontra aukerako berraztertze errekurtsoa aurkeztu ahal zaio Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburuari, argitaratu eta biharamunetik aurrera, hilabeteko epean; bestela, zuzenean administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztu ahal da Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiaren Administrazioarekiko Auzietako Salan, argitaratzen den egunaren biharamunetik aurrera bi hilabeteko epearen barruan.

AZKEN XEDAPENETATIK BIGARRENA

Prozedura-gaietan agindu honek xedatzen ez duen guztirako aplikatuko dira laguntza eta diru-laguntza publikoen gaineko arauak eta azaroaren 26ko 30/1992 Legea, hau da, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen Legea.

AZKEN XEDAPENETATIK HIRUGARRENA

Agindu hau interpretatzeko eta aplikatzeko beharrezko diren jarraibideak emateko baimena du Ikastetxeen zuzendariak.

2014ko urriaren 28a, astearta

AZKEN XEDAPENETATIK LAUGARRENA

EHAAn argitaratzen den egunaren biharamunetik aurrera hartuko du indarra agindu honek.

Vitoria-Gasteiz, 2014ko urriaren 15a.

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburua,
CRISTINA URIARTE TOLEDO.